



X. SAGARDO LEHIAKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak

OINARRIAK

Lehena

HELBURUA

Deialdi honetako helburua “**X.Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak**” arautzea da, 2011ko ekainaren 4ean ospatuko dena Donostiako Euskal Gastronomiaren Anaiartean.

Bigarrena

ANTOLAKETA

2.1. Batzordea

Lehiaketa Batzordea honela osatuko da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren bi ordezkari eta Donostiako Euskal Gastronomiaren Anaiartean ordezkari bat. Batzorde honek “*X. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak*” kudeatuko du.

2.2. Dastaketako Epaimahaia

Sagardo Lehiaketako Epaimahaia hamabi lagunek osatuko dute, ondoren zehazten den moduan:

Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko foru diputatua izango da Epaimahaiburua.

Lehiaketara aurkezten den sagardogile bakoitzak Epaimahairako bost hautagai proposatuko ditu. Boto gehien jasotzen dituzten lehenengo bostak Epaimahaiko kide izango dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak beste bost kide proposatuko ditu Epaimahairako. Proposatutako kide horiek dastatze lanetan adituak, sommelierrak, sagardoaren munduan lan egiten duten enologoak, sagardoaren kofradiakideak, ostalariak, edo antzekoak izango dira.



Landa Ingurunearen Departamentuko funtzionario batek egingo ditu Idazkari lanak. Honek hitzarekin baina botorik izan gabe. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, Epaimahaiburuak berdinketak erabakitzeke kalitatezko botua izango duelarik.

Epaimahaiaren osaketa Landa Ingurunearen Garapeneko foru diputatuaren Foru Aginduaren bidez egingo da publikoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Hirugarrena

PROZEDURA

3.1. Izen Emateak

Sagardo naturala bakarrik onartuko da. Sagardo naturala egiten duten enpresek Gipuzkoan kokaturik egon behar dute eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Industrien Erroldan izena emanda, eta, gainera, Botilaratzaile Erregistroa eduki behar dute.

Errolda eta erregistro agiri horiek **2011eko apirilaren 15eko 15:00ak** baino lehen lortu behar dira, orduan bukatzen baita eskariak aurkezteko epea.

Eskariak, behar bezala beteta, helbide honetara bidali behar dira:

**Gipuzkoako Foru Aldundia
Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentua
Landare Alorreko Unitatea
Gipuzkoa plaza z.g. • 20004 DONOSTIA
Tel: 943 11 21 83 • Faxa: 943 42 69 20**

3.2. Laginak jasotzea

3.2.1. Antolatzaileek sagardotegi bakoitzean, kupeletetik zuzenean hartuko dituzte laginak.

Lehiaketara aurkeztu ahal izateko, berrehun mila litro sagardo baino gehiago egiten dituzten sagardotegiek bost kupel beterik eduki behar dituzte eta gutxiago egiten dutenek, berriz, hiru.

Sagardogileak lehiaketara eraman nahi dituen kupelak zehaztu beharko ditu. Kupel horiei zenbaki bana ipiniko zaie. Zozketa bidez haietako bat bakarrik aukeratuko da, eta hartatik aterako da lagina.

Lehiakide bakoitzaren lagina “*Sagardoa*” modeloko 12 botilek osatuko dute, eta botila horiek sagardo egileak berak ekarri behar ditu.

Botilak etiketarik gabe aurkeztu behar dira. Antolatzaileek etiketa bana ipiniko diete, guztiei berdina, identifikazio numeriko batekin.
Laginak apirilean zehar jasotzeko asmoa dugu.

Botilaratzea garai hori baino lehenago egin ohi duten sagardogileek jakinarazi egin beharko dute, laginak jasotzera joateko.



Botila guztien tapoiak antolakuntzak ipiniko ditu, botila guztien anonimatua gordetzarren.

3.2.2 Lagin bakoitzeko botila bat laborategi enologiko ofizial batera bidaliko da, analiza dezaten.

“*Sagardoaren eta sagarretik ateratako beste edarien Erregelamendua*” betetzen duten laginak (Nekazaritza Ministerioaren 1979ko abuztuaren 1eko Agindua, sagardoak eta sagarretik ateratako edariak arautzekoa. Ikus 1979ko abuztuaren 28ko 206 zk. Estatuko Aldizkari Ofiziala) . dastatze fasera pasatuko dira.

Bigarren fase horretan, dastatzekoan, Epaimahaiak finalean sartuko diren sei sagardoak aukeratuko ditu. Lehiaketako finala, sei sagardo horien artekoa, **2011ko ekainaren 4ean, larunbata**, eguerdiko hamabietan egingo da, Donostiako *Gastronomiako Euskal Anaiartean* .

Sagardo Lehiaketako fase guztietan sagardoan anonimatua gordeko da. Irabazleen izenak ematerakoan ere, lehenengo hiru postuak lortu dituztenen izenak bakarrik emango dira ezagutzera.

Laugarrena

SARIAK

Lehiaketan finalista geratzen diren lehenengo hirurei honako sari eta garaikurrak emango zaizkie:

Lehenengo Saria:	2.250 euro	Txapela eta Garaikurra.
Bigarren Saria:	1.500 euro	eta Garaikurra.
Hirugarren Saria:	750 euro	eta Garaikurra.

Lehiaketaren finalera iritsi diren gainerako finalistek diplomak emango zaizkie.

Sarien banaketa Landa Ingurunearen Garapeneko diputatuaren Foru Arauaren bidez emango da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Epaimahaiak eman gabe utzi dezake sari horietakoren bat.

Bostgarrena

INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazioan sortu daiteken edozein zalantza Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakiko du, Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren bidez.



X CONCURSO DE SIDRA

Premios Diputación Foral de Gipuzkoa

BASES

Primera **OBJETO**

Es objeto de la presente convocatoria regular el “**X Concurso de Sidra. Premios Diputación Foral de Gipuzkoa**”, a celebrar el día 4 de junio de 2011 en la Cofradía Vasca de Gastronomía de San Sebastián.

Segunda **ORGANIZACIÓN**

2.1 Comité

El Comité del Concurso estará constituido por dos representantes del Departamento de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa y un representante de la Cofradía Vasca de Gastronomía, encargándose de la gestión del “X Concurso de Sidra. Premios Diputación Foral de Gipuzkoa”

2.2 Jurado de Cata

El Jurado del Concurso de Sidra, estará formado por doce miembros y se constituirá de la siguiente manera:

El Presidente del mismo será el Diputado Foral de Desarrollo del Medio Rural.

Cada uno de los elaboradores de sidra que se presenten al Concurso propondrá, como candidatos para el Jurado, una lista de cinco miembros. Los cinco primeros más votados pasarán a formar parte del mismo.

El Departamento de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa propondrá otros cinco miembros para el Jurado. Éstos, se escogerán entre expertos en cata, sommeliers, enólogos que trabajen en el mundo de la sidra, cofrades de la sidra, hosteleros, etc.

Actuará como Secretario un funcionario del Departamento de Desarrollo del Medio Rural, miembro del Comité Organizador, con voz pero sin voto.

Las decisiones se tomarán por mayoría, ostentado el Presidente el voto de calidad para dirimir empates.



La composición del Jurado se hará pública mediante Orden Foral del Diputado de Desarrollo del Medio Rural, debiendo publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Tercera **PROCEDIMIENTO**

3.1 Inscripciones

Solamente se admitirá la sidra natural. Las empresas elaboradoras de sidra natural, radicarán en territorio guipuzcoano y estarán inscritas en el Registro de Industrias Agrarias del Gobierno Vasco; asimismo dispondrán del Registro de Embotellador.

Dichos Registros se obtendrán antes de las **15:00 horas del 15 de abril de 2011**, plazo en el que finaliza la solicitud de instancias.

Las instancias debidamente cumplimentadas se harán llegar a:

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Desarrollo del Medio Rural
Unidad de Área Vegetal
Plaza de Gipuzkoa s/n • 20004 San Sebastián
Tel: 943 11 21 83 • Fax: 943 42 69 20

3.2 Recogida de muestras

3.2.1. La organización del Concurso recogerá las muestras directamente de la kupela o del tonel, en las respectivas bodegas.

Para presentarse al Concurso se precisa un mínimo de cinco toneles llenos, para las sidrerías que elaboren más de doscientos mil litros, y de tres para las de menor volumen.

El sidrero indicará los toneles que presenta al Concurso; éstos se numerarán. Por sorteo se escogerá solamente uno, del cual se extraerá la muestra.

La muestra consistirá en doce botellas por concursante del modelo "Sagardoa", que las facilitará cada sidrero.

Las botellas no presentarán etiqueta alguna. La organización colocará una etiqueta igual a todas las botellas con una identificación numérica.

La fecha prevista para la recogida de muestras será durante el mes de abril.



Aquellos elaboradores que habitualmente embotellen con fecha anterior a la descrita deberán notificarlo, para proceder a recoger sus muestras.

Los taponos los aportará la organización a fin de mantener el anonimato en todas las botellas.

3.2.2. Una botella de cada muestra se enviará a un laboratorio enológico oficial para su análisis.

Aquellas muestras que cumplan la “Reglamentación de La Sidra y otras bebidas derivadas de la manzana” (Orden del Ministerio de Agricultura de 1 de agosto de 1979, por la que se reglamentan las sidras y otras bebidas derivadas de la manzana. BOE nº 206, de 28 de agosto de 1979) pasarán a la fase de cata.

En esta segunda fase, la de cata, el Jurado seleccionará seis sidras finalistas, que serán las que concursan en la final. Dicho evento, tendrá lugar el **sábado** día **4 de junio de 2010**, a las doce del mediodía, en la “Cofradía Vasca de Gastronomía” de San Sebastián.

En todo momento de la fase del Concurso de Sidra se mantendrá el anonimato de las sidras. Sólo se darán a conocer los tres primeros premios del Concurso.

Cuarta PREMIOS

Se establecerán premios y trofeos para los tres finalistas del Concurso, consistentes en:

- Primer Premio: **2.250** euros, Txapela y Trofeo
- Segundo Premio: **1.500** euros y Trofeo
- Tercer Premio: **750** euros y Trofeo

Al resto de finalistas se les entregará un diploma acreditativo de su condición.

La concesión de los premios se realizará mediante Orden Foral del Diputado de Desarrollo del Medio Rural y será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El Jurado podrá declarar desierto cualquiera de los Premios.

Quinta INTERPRETACIÓN

Cualquier duda que pueda surgir respecto a la interpretación de las presentes bases, será resuelta por la Diputación Foral de Gipuzkoa a través del Departamento de Desarrollo del Medio Rural.